



**DANTZAN BILAKA 2020-21eko
BATZORDEKIDE izateko
ERRELEBO DEIALDIA**

DANTZAN BILAKA 2020-21EKO BATZORDEKIDE IZATEKO ERRELEBO DEIALDIA

Nori zuzendua

Euskadiko dantza alorreko eta sorkuntza artistikoko profesionalai. Hautagaitzak gauzatzeko ondorengo bidali behar da: Curriculum eta motibazio gutuna. Beharrezkoa izanez gero, elkarrizketa pertsonalak egingo dira.

Deialdia

Deialdi honek, Dantzan Bilakaren 2020ko eta 2021eko edizioetarako koordinazio batzordea txandakatzea du helburu. (ikusi beheago eskaera)

Aurrekariak

2016. urteaz geroztik, Dantzan Bilaka programa hiru pertsonen lan-talde batek koordinatzen du, talde horrek programa aurrera ateratzeko behar den guztiaz arduratzen da. Laguntza eta koordinakuntza batzordeak, horrela deitzen baita, programaren egituraren diseinuaz eta koordinaketa zereginenez gain, garatzen diren prozesu sortzaileei ere jarraipena egiten die. Batzordeak, txandakatze sistema bat jarraitzen du, horrela, taldean pertsona berriak sartzeko modua mailakatua da eta Dantzan Bilakaren koordinakuntzan aurretiko esperientzia duen taldea ziurtatzen da.

2019. urteko edizioan batzordekideak ondorengoak izan dira: Ion Munduate, Luciana Chierigati eta Asier Zabaleta.

Duela hiru ediziotik hona, jardunaldiak lurralde bakarrean kontzentratu dira, urtetik urtera EAEko hiriburuetatik txandakatzeko asmoz. DB 2017. urtean, Bilboko Azkuna Zentroan burutu zen, DB 2018. urtean Gasteizko Artiumen ospatu zen. DB 2019. urtean Donostian izan berri da Tabakaleran. Hurrengo edizioa berriro ere Bilboko Azkuna Zentroan burutuko da.



**DANTZAN BILAKA 2020-21eko
BATZORDEKIDE izateko
ERRELEBO DEIALDIA**

Lanerako baloratuko diren ezaugarri nagusiak:

- Sorkuntza koreografikoaren arloan eperientzia egiaztatua.
- Proiektuak eta ideiak analisirako, hausnarketarako eta egituratzeko gaitasuna.
- Euskal Herrian bizilekua izan, presentzialki topaketak egiteko disponibilitatea. Egutegi pertsonalean ordutegi malgutasuna.
- Kudeaketa administratiboan esperientzia.
- Proiektuen kudeaketan esperientzia.
- Taldeak koordinatzeko gaitasuna.
- Komunikazioan gaitasuna (idatzia eta ahozkoa) eta programaren aurkezpen publikoa.
- Euskadiko dantza sektorearen egungo ezagutza.
- Euskararen menpekotasuna (ahozkoa eta idatzia)

Dantzan Bilaka batzordean bete beharreko ardura eta eginkizunak

DB (Dantzan Bilaka)ren eginkizunen garapenak eta betearazpenak batzordearen hiru kideen artean banatuko dira, beti ere, ADDEren bulegoaren laguntzarekin eta elkarriketan EJrekin eta jardunaldiak jasoko duen espazioarekin.

Dantzan Bilaka programaren diseinua, Koordinazioa eta exekuzioa lau lan esparru biltzen ditu:

1. AKONPAINAMENDU ARTISTIKOA

Laguntza artistikoak dituen ezaugarri zehatzak:

- Material eta ideia artistikoen garapenean akonpainamendua.
- Jardunaldietan proiektua nola aurkeztu hausnarketaren akonpainamendua.
- Agerkarian proiektua nola irudikatu hausnarketaren akonpainamendua.
- Entsaioetara bertaratzeak/ Skype bidez elkarriketak/ telefonoz edo emailaz Komunikazioak.
- Proiektu artistikoen espezifikotasunak batzordekideei komunikatu, teknika koordinatzaileari eta aurkezpena egingo den espazioaren arduradunari.

2. ESPAZIOAK ETA TEKNIKA

Aurkezpen espazioen, teknikaren eta ikus-entzunezko erregistro materialaren koordinaketa. Eginkizun horiek espazioaren arduradunarekin, teknikaren arduradunarekin eta ikus-entzunezko dokumentazioaren arduradunarekin koordinatuko dira.

3. AGERKARIA ETA KOMUNIKAZIOA

DBren agerkariaren koordinazioak, zeregin honen fase ezberdinetako eduki eta parte hartzen duten pertsonak artatzeko gaitasuna eskatzen du (sortzaileak, diseinadore grafikoa, itzultzailea...)

Eginkizun nagusiak hauek dira:

- Agerkaria, batzordearekin eta diseinua egingo duen pertsonarekin koordinatu hartu-eman zuzenean.
- Agerkarirako behar diren materialen bidalketaren jarraipena egin.
- Agerkariak eta kartelak banatzeko zerrenda ikuskatu (batzordearekin, ADDEekin eta Ejrekin batera)
- Programaren prensa dosierra eta presntsa oharra idatzi.
- Agerkariaren sarrerako testua idatzi (batzordearekin elkarrizketan)
- ADDEekin komunikazioari buruzkoak koordinatu: Komunikabideak, prentsa...
- Programaren prentsaurrekoa prestatu eta aurkezpena burutu.
- Aurkezpenen ikus-entzunezko dokumentazioa batzordearekin batera koordinatu.

4. EKINTZA PARALELOAK

Ekintza paraleloen diseinua, ekoizpena eta koordinaketa. Eginkizun horiek DB batzordeko beste kideekin batera egingo dira.

5. ITXIERA LANAK / AZKEN EBALUAKETA

Urteko ekintzei itxiera emateko behar diren eginkizunak. Honakoak izango dira:

- Programaren koordinaketaren barne ebaluaketa.
- Partaideekin ebaluaketa bilera edo galdeketa.
- Ebaluaketa bilera: DB batzordea, ADDE eta EJ.
- Batzorde berriarentzako deialdiaren idazketa.
- Batzordeko kide berrien hautaketa prozesuan parte hartu.

6. DB PROGRAMAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA HAUSNARTU

Eginkizun honek, programaren etorkizuneko hobekuntzaren konpromisoan programaren edukiaren berrikuste lanak eta prozesu elementuen inplementazio zereginak jasotzen ditu.

Eginkizun hori, oinarrizko soldatetik kanpo ordainduko da.

Eskaera

Konpromezua bi urtekoa da, BD 2020 eta BD 2021.

Edizio bakoitzeko lan-denboraldia, pertsona hautatzen denetik (abendu bukaera – urtarrila) jardunaldien itxiera arte izango da (azaroa).

Bitarteko tenporalak

Gutxienez hilean behin bilera presentzial bat (bi izatea gomendagarria). Bilera horiek batzordeko kideekin, Eusko Jaurlaritzarekin, ADDEren batzordearekin edo jardunaldiak jasotzen dituen espazioaren arduradunekin izan daitezke. Etengabeko erabilgarritasuna posta elektronikoko bidezko harremanean (mezuen erantzunak).

Soldata

5.000 euro + BEZ



DANTZAN BILAKA 2020-21eko BATZORDEKIDE izateko ERRELEBO DEIALDIA

Entregatu beharreko eskaera

Honako helbidera bidali behar da info@addedantza.org

- CV (ibilbide artistikoa eta proiektuen kudeaketan eta koordinazioan izandako praktika aipatuz)
- Motibazio gutuna.
- 2020 egutegiaren disponibilitatea.

Epeak

- Eskaerak aurkezteko urriaren 28tik azaroaren 20ra.
- Pertsonaren hautaketa azaroaren 21etik abenduaren 5era.
- Aukeraketaren Komunikazioa abenduaren 9ko astean.